Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2021eko irailaren 3a, ostirala — 169 — Viernes, a 3 de septiembre de 2021

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## LEGAZPIKO UDALA

*Iragarkia*

Legazpiko Udaleko Osoko Bilkurak, 2021/07/28an eginiko bileran, akordio hau hartu zuen:

*Legazpiko txikizkako merkataritzan eta mikroenpresetan kontsumoa sustatzeko 3K bonuen programa arautzen duten oinarriak eta deialdia.*

XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua. Xedea.*

Hauxe da deialdi honen xedea: Legazpiko txikizkako merkataritzan eta mikroenpresetan kontsumoa suspertzeko 3K bonuak emateko programa arautzea, Covid-19 pandemiak eragindako krisi ekonomikoaren aurrean sektore horiek biziberritzeko neurri gisa.

*2. artikulua. Araudi erregulatzailea.*

Deialdi honetan ezarritakoaz gain, ondoko aginduek arautuko dute diru-laguntza hau:

— 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

— 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzen Erregelamendu Orokorra onartzen duena.

— Legazpiko Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen ordenantza orokorra.

*3. artikulua. Organo eskuduna.*

Legazpiko Udalaren Osoko Bilkurak du deialdi hau onartzeko eskumena.

*4. artikula. Aurrekontu-kreditua.*

Programa hau Legazpiko Udalaren 2021erako Aurrekontu Orokorretako 1 0201 431 00 471 21 aurrekontu-partidaren kontura finantzatuko da. Partida horren zuzkidura 40.000 €-koa da.

Eman beharreko laguntzen bolumen totalak ez du diru-kopuru hori gaindituko; halaber, ez du diru-zuzkidura hori eguneratzetik ateratzen den kopurua gaindituko, baldin eta indarrean dagoen legeriaren arabera aurrekontu-aldaketak onartzen badira.

Aurrekontu-kreditua handitzearen ondorioz diru-laguntzen hasierako zuzkidura handitzeko, ez da beharrezkoa izango deialdia berriro argitaratzea, eraginkorra izan dadin.

*5. artikulua. Diruz lagun daitekeen jarduera.*

Kanpainari atxikitako saltoki eta mikroenpresetan ondasunak eta zerbitzuak erosteko diru-laguntzak emango dira, haietan egongo diren deskontu-bonu mota bakarraren bidez.

3K bonu bakoitza 5 euroko balioa duen deskontu-bonotzat hartuko da, atxikitako establezimenduetan 20 euroko gutxieneko erosketa baten gainean.

Programa honen 8.000 bonuak programari atxikitzen zaizkion saltoki eta mikroenpresen artean banatuko dira, establezimendu guztiek bonu kopuru bera izan dezaten.

## AYUNTAMIENTO DE LEGAZPI

*Anuncio*

El Pleno del Ayuntamiento de Legazpi, en sesión celebrada el 28/07/2021, adoptó el siguiente acuerdo:

*Bases y convocatoria que regulan el programa de Bonos 3K de estímulo al consumo en el comercio minorista y microempresas de Legazpi.*

DISPOSICIONES DE CARÁCTER GENERAL

*Artículo 1. Objeto.*

El objeto de la presente convocatoria es regular el programa de concesión de Bonos 3K dirigidos a estimular el consumo en el comercio minorista y microempresas de Legazpi, como medida de revitalización de estos sectores ante la crisis económica provocada por la pandemia de Covid-19.

*Artículo 2. Normativa reguladora.*

Además de lo establecido en esta convocatoria, esta subvención será regulada por:

— Ley General de Subvenciones 38/2003 de 17 de noviembre.

— Reglamento General de Subvenciones aprobado por Real Decreto 887/2006 de 21 de julio.

— Ordenanza General reguladora de la concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Legazpi.

*Artículo 3. Órgano competente.*

El órgano competente para la aprobación de la presente convocatoria es el Pleno del Ayuntamiento de Legazpi.

*Artículo 4. Crédito presupuestario.*

Este programa se ha dotado con 40.000 €, con cargo a la partida 1 0201 431 00 471 21 de los Presupuestos Generales del Ayuntamiento de Legazpi para el año 2021.

El volumen total de las ayudas a conceder no excederá de la consignación señalada o la que resulte de su actualización, en el caso de que se aprueben modificaciones presupuestarias de conformidad con la legislación vigente.

La ampliación de la dotación inicial de las ayudas como consecuencia de la ampliación del crédito presupuestario no requerirá de nueva publicación de la convocatoria para su eficacia.

*Artículo 5. Actividad subvencionable.*

Se subvencionará la compra de bienes y servicios en los comercios y microempresas adheridas a la campaña, a través de un único tipo de bono descuento disponible en las mismas.

Cada bono 3K tendrá la consideración de bono descuento por un valor de 5 € sobre una compra mínima de 20 € en los establecimientos adheridos.

Los 8.000 bonos de este programa se repartirán de entre los comercios y microempresas que se adhieran el programa de forma que todos los establecimientos tendrán el mismo número de bonos.

EK\CV GAO-I-2021-05716

IFK beraren pean udalerriko bi lokaletan merkataritza-jarduera egiten bada, bonuak banatzerakoan bi saltokitzat hartuko dira.

Deskontu-bonuak establezimendu edo negozio berean banatu eta erabiliko dira erosketa egiten den unean, eta onuraduna bere NANaren bidez identifikatu beharko da.

Faktura bakoitzeko gehienez 10 bonu aplikatu ahal izango dira.

Programa indarrean sartzen den egunaren eta 2021-12-31ren artean egindako salmentak dira hobaria jasoko dutenak.

*6. artikulua. Laguntzen izaera.*

Programa honen baitan ematen diren laguntzak itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak izango dira.

*7. artikulua. Onuradunak.*

Laguntza hauen onuradunak 18 urtetik gorako pertsona fisikoak dira.

*8. artikulua. Establezimenduek programari atxikitzeko bete beharreko baldintzak.*

3K bonu-programari atxikitzeko, txikizkako saltokiek eta mikroenpresek baldintza hauek bete beharko dituzte:

1. Legazpin kokatutako merkataritza-jarduera edo mikroenpresa baten titularra den pertsona fisiko eta juridikoa izatea.

2. Gehienez 10 langile izatea.

3. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egotea Legazpiko udalerrian. Udalak ofizioz egiaztatuko du alderdi hori.

4. Gizarte Segurantzarekiko, Foru Ogasunarekiko eta Legazpiko Udalarekiko betebeharrak egunean izatea.

5. Diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratiborik edo penalik ez izatea, ezta horretarako legezko inolako debekurik ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoaren arabera sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak barne.

6. Atxikitako saltokiek eta mikroenpresek bonuak kudeatzeko konpromisoa hartzen dute.

ESKABIDEAK

*9. artikulua. Programari atxikitzeko dokumentazioa eta epea.*

9.1. Dokumentazioa:

— Eskabide-orri ofiziala behar bezala beteta eta sinatuta.

— Eskatzailearen banku-kontuaren titulartasuna egiaztatzen duen agiria (honako agiri hauetako edozein izango da baliozkoa): banku-laburpenaren kopia; libretaren kopia; banketxeak emandako ziurtagiria edo banketxeak dirulaguntzaren eskabide-orriko «kontu-zenbakia» atalean jarritako zigilua.

— Laguntza emateko irizpideak kontuan hartuta, erabili daitekeen beste edozein agiri.

9.2. Eskabideak aurkezteko epea:

Eskabideak aurkezteko epea 10 lanegunekoa (astelehentik ostiralera) izango da, deialdiaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Si bajo un mismo CIF se realizara actividad comercial en dos locales diferentes del municipio, a la hora del reparto de bonos se les dará la consideración de dos comercios.

La distribución y disfrute de los bonos-descuento tendrá lugar en el mismo establecimiento o negocio en el momento de la compra, y requerirá de la identificación de la persona beneficiaria mediante su número de DNI.

Se podrá aplicar un máximo de 10 bonos por factura.

Las ventas bonificadas son las realizadas entre el día de entrada en vigor del programa y el 31-12-2021.

*Artículo 6. Naturaleza de las ayudas.*

Las ayudas que se concedan en el marco del presente programa tendrán la consideración de subvenciones a fondo perdido no reintegrables.

*Artículo 7. Personas beneficiarias.*

Se considerarán personas beneficiarias de estas ayudas las personas físicas, mayores de 18 años.

*Artículo 8. Requisitos de los establecimientos para la adhesión al programa.*

Para adherirse al programa de bonos 3K los comercios minoristas y microempresas deberán cumplir los siguientes requisitos.

1. Ser personas físicas o jurídicas titulares de una actividad de comercio o microempresa ubicada en Legazpi.

2. Tener un máximo de 10 personas trabajadoras.

3. Figurar de alta en el Impuesto sobre Actividades Económicas en el municipio de Legazpi. El Ayuntamiento comprobará de oficio este aspecto.

4. Estar al corriente de sus obligaciones con Hacienda Foral, Seguridad Social y con el Ayuntamiento de Legazpi.

5. No estar sancionada/o, penal o administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, o estar incursa/o en prohibición legal alguna que le inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por incurrir en discriminación por razón de sexo, en virtud de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, o de la Ley Orgánica 3/2007, de 30 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres.

6. Los comercios y microempresas adheridos se comprometen a realizar la gestión de los bonos.

SOLICITUDES

*Artículo 9. Documentación y plazo para solicitar la adhesión al programa.*

9.1. Documentación:

— Impreso de solicitud oficial debidamente cumplimentado y firmado.

— Documento justificativo de la titularidad de la cuenta bancaria de la persona solicitante (será válido, cualquiera de los siguientes documentos: Copia del extracto bancario; copia de la libreta; certificado expedido por la entidad bancaria o sello estampado por la entidad bancaria en el apartado «Número cuenta» del impreso de solicitud de subvención).

— Cualquier otra documentación que pueda ser de utilizada teniendo en cuenta los criterios de concesión de la ayuda.

9.2. Plazo de presentación de solicitudes:

El plazo para la presentación de solicitudes comenzará al día siguiente a la publicación del anuncio de esta convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y se extenderá durante 10 días laborables, considerados estos de lunes a viernes.

EK\CV GAO-I-2021-05716

Pertsona fisikoek bi eratara aurkez dezakete eskabidea:

— Aurrez aurre, Legazpiko Udaleko Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan.

— Edo telematikoki, Legazpiko Udaleko egoitza elektronikoaren bidez. https://egoitza.legazpi.eus.

Pertsona juridikoek telematikoki aurkeztuko dute eskabidea, Legazpiko Udaleko egoitza elektronikoaren bidez: https://egoitza.legazpi.eus.

9.3. Laguntzen indarraldia eta programaren egutegia:

Irailean, kanpainaren hasiera-dataren berri emango zaie atxikitako establezimenduei.

Bonuak trukatzeko epea 2021eko abenduaren 31n amaituko da.

Egun hori igaro eta gero ezingo dira bonuak trukatu.

Nolanahi ere, Legazpiko Udalak data horiek aldatzeko eskubidea izango du Alkatetzaren dekretu bidez, baldin eta behar bezala iragartzen bada udalaren webgunean eta sare sozialetan.

*10. artikulua. Akatsak zuzentzea.*

Eskaera-orriak edo harekin batera aurkeztu behar den nahitaezko dokumentazioak akatsen bat badu edo osorik ez badago, hamar eguneko epea emango zaie interesdunei, errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, antzemandako akatsak zuzentzeko.

Emandako epea igaro eta antzemandako akatsak zuzendu ez badira, eskaeran atzera egin dutela ulertuko da, eta prozedura artxibatu egingo da, 30/1992 Legearen 71. artikuluaren arabera emango den ebazpenaren ondoren.

DIRULAGUNTZA EMATEA

*11. artikulua. Izapidetzeaz arduratuko den administrazio-unitatea.*

Merkataritza zerbitzuak izapidetuko ditu eskabideak.

*12. artikulua. Bonuen balioa.*

3K deskontu-bonuak 5 euroko balioa izango du, eta 20 euroko gutxieneko kontsumoei eta 20 euroko multiploei aplikatuko zaie, faktura bakoitzeko 10 deskontu-bonu gehienez ere.

*13. artikulua. Justifikazioa.*

Justifikazioa egiteko, datuak dituen telefono mugikor bat erabili beharko da.

Programari atxikitako saltokiak eta mikroenpresak web aplikazio batean sartuko dira. Horretarako, Legazpiko Udalak emango dien gako pertsonalizatua erabiliko dute.

Saltokiek bezeroaren NAN zenbakia eta erosketaren zenbatekoa adieraziko dituzte bonuan, eta erosketa-tiketaren edo fakturaren argazki bat erantsiko dute.

Legazpiko Udalak automatikoki jasoko du informazio hori.

*14. artikulua. Diru-laguntza ordaintzea.*

Dagokion hobariaren zenbatekoa aurreko artikuluan azaldutakoaren arabera jasotako dokumentazioa egiaztatu ondoren ordainduko da. Astero banku-transferentzia bat egingo da, ordaindu gabe dauden egindako eragiketekin.

*15. artikulua. Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna.*

Oinarri hauen arabera emandako laguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako emandako beste laguntza batzuekin.

Las personas físicas podrán elegir entre dos modos de presentar la solicitud:

— De forma presencial, en el Servicio de Atención Ciudadana del Ayuntamiento de Legazpi.

— O de forma telemática, a través de la sede electrónica del Ayuntamiento de Legazpi: https://egoitza.legazpi.eus.

Las personas jurídicas presentarán la solicitud de forma telemática a través de la sede electrónica del Ayuntamiento de Legazpi: https://egoitza.legazpi.eus.

9.3. Vigencia de las ayudas y calendario del programa:

A lo largo del mes de septiembre se informará a los establecimientos adheridos sobre la fecha de inicio de la campaña.

El plazo para canjear los bonos finalizará el 31 de diciembre de 2021.

Transcurrida dicha fecha, no podrán canjearse.

En cualquier caso, el Ayuntamiento de Legazpi se reserva el derecho a modificar estas fechas por Decreto de Alcaldía, siempre que se publicite convenientemente en la web y redes sociales municipales.

*Artículo 10. Subsanación de defectos.*

Cuando la instancia de solicitud o la documentación preceptiva que la acompaña adolezca de algún error o esté incompleta, se otorgará a las personas interesadas un plazo de diez días, contados a partir del día siguiente al de la notificación del requerimiento, para subsanar los defectos detectados.

Transcurrido el plazo concedido sin que se subsanen los defectos detectados, se les tendrá por desistidas de su petición, archivándose el procedimiento, previa resolución que será dictada en los términos del artículo 71 de la Ley 30/1992.

CONCESIÓN DE LA SUBVENCIÓN

*Artículo 11. Unidad administrativa encargada de la tramitación.*

Las solicitudes serán tramitadas por el Servicio de Comercio.

*Artículo 12. Valor de los bonos.*

El bono-descuento 3K tendrá un valor de 5 € y se aplicará a consumos mínimos de 20 € y múltiplos de 20 €, hasta un máximo de 10 bonos-descuento por factura.

*Artículo 13. Justificación.*

La justificación requerirá el uso de un teléfono móvil con datos.

Los comercios y microempresas adheridos al programa accederán a una aplicación web. Para ello utilizarán la clave personalizada que les facilitará el Ayuntamiento de Legazpi.

Los comercios cumplimentarán el bono con el número de DNI del cliente/a, el importe de la compra y adjuntarán una foto del ticket de compra o factura.

Automáticamente el Ayuntamiento de Legazpi recibirá esta información.

*Artículo 14. Abono de las ayudas.*

El importe objeto de bonificación será ingresado una vez realizada la comprobación de la documentación recibida según lo explicado en el artículo anterior. Se efectuará una transferencia bancaria semanal con las operaciones realizadas pendientes de abono.

*Artículo 15. Concurrencia con otras ayudas.*

Las ayudas concedidas de acuerdo con estas bases serán compatibles con otras ayudas destinadas para el mismo fin.

EK\CV GAO-I-2021-05716

*16. artikulua. Errekurtsoak.*

Interesdunek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute deialdi honen aurka Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Nolanahi ere, aldez aurretik, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio deialdia onartu duen organo eskudunar, deialdia argitaratu eta hilabeteko epean, hurrengo egunetik kontatzen hasita. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkeztu ahal izango da.

*17. artikulua. Izaera pertsonaleko datuak babestea.*

Diru-laguntzaren eskaera aurkeztean, eskatzaileak deialdi honetan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela eta oinarriak osorik onartzen dituela adierazten du. Era berean, adierazten du eskabidean jasotako datu pertsonalak bere baimenarekin jasotzen direla, eta onartzen duela datu horiek modu automatizatuan tratatzea eta Legazpiko Udalak behar bezala baimendutako fitxategietan sartzea; halaber, baimena ematen du datu horien erabilera udal-Kudeaketara soilik mugatzeko. Datu horiek beste administrazio publiko batzuei edo hirugarrenei laga edo jakinarazi ahal izango zaizkie, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan aurreikusitako kasuetan.

Legazpi, 2021eko abuztuaren 26a.—Koldobike Olabide Huelga, alkatea. (5716)

*Artículo 16. Recursos.*

Quienes ostenten la condición de interesados podrán interponer directamente contra la presente convocatoria recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el órgano competente que haya aprobado la misma, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

*Artículo 17. Protección de datos de carácter personal.*

Con la presentación de la solicitud de subvención, el/la solicitante declara que reúne todos los requisitos establecidos en esta convocatoria y que acepta íntegramente las bases. Así mismo, manifiesta que los Datos Personales contenidos en la instancia son recogidos bajo su consentimiento y que acepta que dichos datos sean objeto de tratamiento automatizado e incorporados a los diferentes ficheros debidamente autorizados del Ayuntamiento de Legazpi y que autoriza a que el uso de dichos datos se restrinja exclusivamente a la gestión municipal, pudiendo procederse a su cesión o comunicación a otras Administraciones Públicas o terceros en los supuestos previstos en la Ley Orgánica 3/2018 de 5 de diciembre de Protección de Datos de Carácter Personal.

Legazpi, a 26 de agosto de 2021.—La alcaldesa, Koldobike Olabide Huelga. (5716)